

Aukeratu ditugun ideiak kontuan hartuta, enpresan egin beharko genituzkeen jarduerarik garrantzitsuenak identifikatu ditugu, negozio-ereduak funtziona dezan.

Batetik, gure formakuntza diseinatzea, aurkezpenak sortzea, eta bestetik kartelak egitea formakuntza hauen hedapenerako.

Horretarako, hainbat formakuntza egingo ditugu, hau da, nutrizio eta elikadura haurrengan eta pantailak 0-6 etapan bai ala ez. Nutrizioari begira, gure inguruko haurrek ahalik eta osasun hobea edukitzeko landuko dugu; gaur egun, familia gehienek ez dakite nola izan beharko litzateke haien seme-alaben elikadura bizitza. Izan ere, pantailekin transmititu nahi dieguna, 0-6 etapan haurra pantaila baten aurrean hezitzea ez dela hoberena eragin handia izango duelako etorkizun batean haien ikusmenean. Aipatu beharra dago ere, haurren harremanetan ezinbestekoa dela aurrez - aurreko tratua haien arlo soziala garatzeko. Esate baterako, besteekin harremantzerako orduan, hitz egiterako orduan....

Bestetik, lanean hasi baino lehen, zenbait arau, eta jarrera adostuko ditugu. Gure artean gatazkak kontrolatu eta horren aurrean nola jokatu eta zer egin jakiteko. Arazoren bat badugu, taldekide guztiak elkartu eta hasunartu zein eztabaidatu eta negoziatzea funtsezkoa izango da. Gatazka gutxiako sortzeko, arau eta konpromiso batzuk hartu, idatzi eta beteko ditugu. Gainera, bi bilera egun finko jarriko ditugu eta batzar horietan, elkar zaintzari, gure arteko komunikazioari eskeiniko diogu tarte. Garrantzitsua iruditzen baitzaigu talde bat garen heinean elkarrenganako harremana, komunikazioa eta zaintza bermatzea. Izan ere, taldean lan egiterako garaian bestearekin jardutea beharrezkoa delako eta lehen aipatutako gakoak betetzen ez badira ohikoa delako taldeko lanaren produktibitatea nabarmen jeistea eta gure helburua produktibitate handiena eta ahalik eta galera gutxien sortzea delako.

Horrez gain, instagram, facebook, twitter, telegram eta sare sozialetatik haratago, webgunea sortzea ere gure erronketako bat izango da. Bertan, informazioa txertatu, diseinatu, mantendu, eguneratu eta hau kudeatzea. Honela hedapenerako aberasgarria izanik eta elkartearen nondik norakoak ezagutu eta ikustarazteko. Webgunea baliagarria izango zaigu, harremanak sortu, familia ezberdinetara iritsi eta konektatzeko. Honela, zenbait formakuntzetarako profesionalekin kontaktuan jarri eta gure inguruan gehiago jakin nahi badute webgunearen bitartez aukera emanez.

Gure ustez, gure bezeroen iraunkortasuna luzea izango da. Hots, egunerokotasunera egokitutako elkarte bat baikara. Hau da, guraso, hezitzaile, ikastetxeek... dituzten eguneroko erronkak argituko ditugu.

Imigrazioari buruz informatuko diegu garrantzitsua iruditzen zaigulako, esate baterako, eskoletara etortzen diren kanpoko jendeak baztertuta ez sentitzeko eta talde barruan daudela senti dezaten.

Honekin lotuta, praktikan ikusitako egoeretan oinarritu gara. Izan ere, gure klasean zehazki 2 urteko gelan ume beltzaren bat zegoen eta momentu guztietan ikusten genuen baztertuta eta ez zela inklusiorik bermatzen umeei desberdin ikusten zutelako. Honi lotuta, inklusioa bermatzeko dinamika batzuk egiten hasi ginen umeei, hau da, beste umeei azaltzen hasi genien beraien bezalakoa zela, baina bakarrik aldatzen zuela bere azal kolorea beste guztia berdina dela, eta jolastu ahal dutela berarekin arazorik gabe.

